



“Konbentzituta nago Himalaian hilko naizela”

Juanito Oiarzabal

Donostia bezalakoa: bakarra munduan.

SUSTRAI COLINA

Argazkia: Alex Larretxi

Zure aurpegia ezaguna egiten zait.

Ez esan igo ditudan 8.000koengatik eta ETBn egiten ditudan programa txatxuengatik dela. Noiz onartuko didazue ordura arte izandako kirol ibilbide aberatsa?

Aizu, hemen 8.000ko bat igotzen ez duena ez da ezer.

Noiz ohartuko zarete azken urteetan Inurra-tegik, Vallejok eta Zabazak egin dituzten zeharkaldiek edozein 8.000ko igotzeak baino balore handiagoa dutela? Sormena, arriskua, konpromisoa eta jarrera hartu behar dira kontuan, ez gailurraren garaiera.

Zu zertan ari zara ba 8.000koen bilduma egiten?

Bi aldiz hamalau 8.000koak igotzen lehena izateari garrantzi pertsonala ematen diot, baina onartzen dut: uneotan ez diot ekarpenik egiten euskal alpinismoari.

Bi aldiz hamalau 8.000koak... Baina katuak baino bizitza gehiagorekin!

Katuak zazpi bizitza bakarrik ditu, ni hamalagarrenean noa. Nire bizitza mendian hiltzera determinatuta dago. Konbentzituta nago Himalaian hilko naizela.

Horregatik sartu zaigu Anbotora baino lehena-go Everestera abiatzeko mania?

Everestek bere nortasun eta protagonismo guztia galdu du. Dena komertzializatu da, bide guztiak ekipatuta daude, arrasto guztiak zabalik, oxigenoa non-nahi... San Prudentzio eguneko erromerian baino jende gehiago dabil!

Dena komertzializatuko zen, dena modernizatu, baina gero amonaxo batek ematen ditu gailurrak ontzat!

Hawley anderea oso pertsona jakintsu eta jantzia iruditzen zait, egia eta gezurra bereizten abila, hamaika entzun eta ikusitakoa, baina noiz sortuko da nazioarteko erakunde bat gure jardura arautu eta bideratzeko?

Telebista programa oso bat inoren amarekin akordatu gabe pasatzen duzunean, agian?

Batzuek larrutzen naute, besteek goretsi, baina nik ondo pasatzeaz gain patrika betetzen dut, eta horri esker mendian ibiltzeko denbora daukat. Noiz ulertuko duzue nire bizitza puta guztia daramadala mendian eta ez naizela sekula aberastu?

Segi mendira, orduan!

Jakina! Hamalau 8.000koen erronda bukatzen badut, oraindik bizi naizela esan nahiko du. Bestela, ez galdu denborarik nire bila... ■

